



## ELGOIBAR IKASTOLAKO TUTORIZAZIO PLANA

Elgoibar ikastolako hezkuntza komunitate osoaren lana da irakastetik aparte, ikaslea pertsona izaten laguntzeko prozesuan, pertsona bakoitzaren berezitasunak errespetatuz eta gizarteko esparru desberdinetan integratzeko bidea eraikitzen laguntzea.

Irakasle guztiak dira ikaslearen tutorizazio arduradun .

Ikastolako tutorizazio lanaren helburua ikasleak bere burua ezagut dezala eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza arazoak konpontzen ikas dezala eta bere proiektu pertsonalaren protagonista izaten laguntzea da.

Tutorizazio lan honetan, bi eremu bereizten ditugu:

### **-Eremu Pertsonala:**

Helburua: Komunikazioa, elkarlana, solidaritatea, eta desberdintasunei eta araei errespetua lantzen duena, aktibitate desberdinak eginaz landuz (debateak, asanbladak, ikastolako estamentuetan parte hartzeak...).

### **-Eskola orientazioa:**

Helburua: Ikas-Irakas prozesua egoera onenetan eman dadin ziurtatzen duena, taldearen jarraipena eta ikasle bakoitzaren garapen kognitiboa bermatzen duena, beste era bateko aktibitateak eginaz (pentsatzen ikastekoak, ikasten ikastekoak, estrategia eta prozedimendu teknika desberdinak; Informazioa lortzekoak...)

### **Tutorizazio Plana.**

Tutorearen ardura da beste irakasle taldearekin eta beste eragile batzuekin (orientatzailea, ongizate...) elkarlanean koordinatuta garatzen du.

Horretarako ondorengo eremu eta prozedura garatzen ditu:

#### 1. Harrera Plana.

#### 2. Taldearen Informazioa Jaso.

#### 3. Ikasleen Egokitzapenak proposatu eta Jarraipena egin

#### 4. Gelako Elkarrizketa Plana egin.

#### 5. Ikasle eta Familiei Aholkularitza eman.

#### 6. Portaera edo/eta Jarrera Ezkorrak Bideratu.

#### 7. Absentismoaren jarraipena egin.

#### 8. Gelako Bilerak Familiekin egin.

#### 9. Egokitzapen jarraipena eta ikasleen garapen mailaren komunikazioa.

### **1. Harrera Plana.**

Guraso berriak direnean , bilera orokorretik aparte, haurrak izango duen egokitzapen aldiko ordutegia eta garaia zehazten da . Haurrekin datorren arduraduna, gela barruan egongo da hezitzailearekin harremana sendotu arte, banatze prozesua arinagoa izan dadin.

LH 1. mailara sartzekoan ikasleen taldeak nahastu egiten dira, harremanak ireki, rol negatiboak ekidi, garapen pertsonala hobetzeko.

DBH 1 mailara sartzekoan ere ikasleen taldeak nahastu egiten dira, aurrez aipaturiko arazoak medio.



Kurtsoan zehar gelara ikasle berria etortzen denean, bertako ikasleekin batera integratzen lagunduko dion protokoloa martxan jartzen da.

Horretarako, Orientazio departamenduarekin batera, ikaslea zer gelalara adskribitzen den erabakitzen da. Tutoreak gelako ikasleak prestatzen ditu. Gela barruan, ikasle berriaren eta gelako ezaugarrien arabera, behar den protokoloa (ikasle laguntzaile/erreferenteak jarri, gletalo kokapena...) martxan jartzen da.

## **2. Taldearen Informazioa Jaso.**

Ikasturte hasieran aurreko irakasleen eta soporte informatikoen bitartez, taldearen informazio bilketa egiten da. Kurtsoan zehar tutoreak ikasleen informazioa iturri desberdinetatik, kanpoko erakundeak (Ikuskaritza, Ongizate, Ludoteka...), aurrebaluazioak eta ebaluazio saioetatik informazio hau osatzen joaten da.

Lortutako informazio guzti hauen helburuetariko bat, arazoei bizkor eta eraginkortasunez erantzutea da.,

## **3. Ikasleen Egokitzapenak proposatu eta Jarraipena egin.**

Aurrez esan bezala, informazioa jasotzearen helburua, ikasleek dituzten zailtasunei eta behar diren programazioari buruzko egokitzapenak, premia bereziei aurre hartzea da. Ebaluaketa saioetan edo aurrebaluazio saioetan, curriculum egokitzapenetan, berariazko esku hartzeak eta ikasleentzako errefortzu jarduerak proposatu, erabaki eta martxan jartzen dira.

## **4. Gelako Elkarrizketa Plana egin.**

Tutore bakoitzak bere gelako elkarrizketa plana planifikatu eta martxan jartzen du Elkarrizketa Plana egiterakoan, tutoreak ikasleen premieiak sailkatu/identifikatzen ditu, elkarrizketak antolatzeko. Tutore guztiek bi aldiz gutxienez elkarrizketatuko da familia bakoitzarekin. Elkarrizketa hoietan ikaslearen adina eta errefortzuen arabera egongo dira (ikaslea, errefortzuko irakasleak, orientatzailea...)

Elkarrizketak egiteko, ohiko medioak erabiliko dira, bai familia eta baita tutorearen aldetik ere (email, agenda, telefonoa...)

## **5. Ikasle eta Familiei Aholkularitza eman.**

Ikaslearen autonomia garapenean, ikasketa eta portaera arazoen konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan laguntza eskaintzen, besteak beste

## **6. Portaera edo/eta Jarrera Ezkorak Bideratu.**

Ikasle baten edo eta ikasle talde baten portaera edo jarrera ezkorra gertatzean, Bizikidetzaren planean eta AJA dokumentuan jartzen duen protokoloarekin jokatzeko dugu. Portaera sahiestu behar izan duen irakasle/langileak momentuan konpontzen ahaleginduko da gertaera adierazmena beteko du. Bizikidetzaren taldeak adierazmenen jarraipen egiten du hamabostero. Gertaeraren maila edo gertaeraren errepikaketa kontutan izanda etxera bidaliko da adierazpena, familia jakinean jakiteko.

## **7. Absentismoaren jarraipena egin.**

Irakasle bakoitzak gelako asistentzia datuak jaso eta dagokion taulan jartzen ditu. Tutoreak hutsuneak justifikatuak diren ala ez ziurtatzen ditu. Azkenik, justifikatu gabeko hutsune kopurua % gutxiengoa gainditzen badu, behar den estamendura bideratzen dira datu hauek.

## **8. Gelako Bilerak Familiekin egin.**

Ikasturte hasierako bilerak dira hauek. Maila bakoitzeko bilera bat gutxienez egiten da. Iraila bukaeratik urriaren erdirako tartean egiten dira. Tutoreak dira bilera antolatu eta eramango dutenak. Bertan ikastola osoan landuko diren gaietatik aparte, mailako gai espezifikoak azalduko dira (Ikasturtearen antolaketaren akademikoaren informazioa: irakasleak, ordutegia, gelak, ikasgaiak eta ebaluazioak, ikasturterako antolatuta dauden jarduerak, tutorearekin elkarrizketak, norbere etxeko heziketa lana eta ikastolari dagokiona, Gurasoen Kontseiluaren berriztapena. (2 urtetik behin)...) )



### **9. Egokitzapen jarraipena eta ikasleen garapen mailaren komunikazioa.**

Ikasle bakoitzaren garapen maila familiei, elkarrizketen (urtean bi gutxienez) eta hiruhilabetero bidaltzen diren txostenen bitartez komunikatzen zaie. Bileren horetan, DBH mailakoak direnean, ikaslea ere bertan izaten da. Bestalde, ikaslearen garapenerako familia eta ikastolaren arteko komunikazio eta elkarlana ezin bestekoa delarik, bai familiaren aldetik eta baita irakasle-tutoreen aldetik behar den guztietan biltzea potentziatuko dugu. Horretarako behar den protokoloa jarraituko dugu.